



Kontsonante bustien erabilera

- Euskaraz ez dira oso sarritan *ñ*, *ll*, *tt* eta *dd* letrak erabiltzen. Kontsonante bikoitz horiek balio txikigarria edo adierazkorra ematen diete hitzei.
 - haurño, Maddalen, ttantta...*
- Ñ* letra duten hitz gehienak adierazkorrak dira. Badira ere letra hori duten izen bereziak:
 - amañi, andereño, ñimiño, Oñati, Iruñea, Beñat, Garbiñe...*
- LL* letra mailegutan erabiltzen da bereziki eta baita izenetan ere.
 - lentilla, tortilla, gerrilla, Pello...*
- TT* eta *DD* kontsonante bikoitzak ere gutxitan erabiltzen dira, eta balio adierazkorrekin gehienetan.
 - onddo, pottoka, Bittor, Maddi...*

1 TT ETA DD KONTSONANTE BIKOITZAK. Idatzi hitzak definizioen ondoan.

pattar onddo motto ttuntturro Addar

- Txapel eta hanka lodidun perretxikoa:
- Joaldunen kapela puntazorrotz eta koloretsua:
- Alkoholodun edari bizi eta bortitza:
- Deabruari zenbait lekutan ematen dioten izena:
- Txoriek buru gainean dituzten luma tenteen multzoa:

2 LL ETA -LL- Aukeratu hitz zuzena esaldia osatzeko.

- Amonak bost euroko *biletea* / *billetea* eman dit ogia erosteko.
- Lantegi horretan ehun bat *langile* / *langille* dabilta lanean.
- Igandero *paelia* / *paella* jaten dugu etxean.
- Lanpara horretako *bonbila* / *bonbilla* hondatuta dago.
- Zulatu egin zait atzeko *gurpila* / *gurpilla*.

3 Ñ ETA -IN-. Aukeratu gaizki idatzita daudenak eta zuzendu.

- | | |
|------------------------------------|---------------------------------------|
| ☐ sorgiña | ☐ lainoa |
| ☐ kofñaka | ☐ bainujantzia |
| ☐ andereino | ☐ uhiña |
| ☐ ñabardura | ☐ oinatiar |
| ☐ moinoño | ☐ ñimino |
| ☐ piraina | ☐ ertzaña |

JAKIZU

- Euskaraz *-in-* eta *-il-* letra multzoak *ñ* eta *ll* gisa ahoskatzen dira leku askotan.
- Ahoskera aldetik bereziak dira *tt* eta *dd* kontsonante bikoitzak.